

Tricicleren umorea La2en

La2 • 23:00etan

Tricicle antzerki talde kataluniarraren antzezlan bat emango dute osorik gaur gauean La2eko *Lo tuyo es puro teatro* saioan: *Terrific*.



gaurko filmak

Ane Muñoz

■ COMA.

Crichtonek idatzi eta zuzendu-tako drama gogor eta ezatsegin hau koman dagoen pertsonaia baten inguruan garatzen da. Sendagile protagonista gaztearen egoera larria probokatua izan dela ohartu da, eta eragilearen atzetik dabil zintaren amaierara bitartean. Zuzendariak ederki ezagutzen duen jeneroari dagokio, hau da suspentsea eta beldurra eragiten duten film multzoari. Crichtonek elementu fantastikoak erabili ditu, ohi bezala. Aktore eza-gunek protagonizatua dago, Genevieve Bujold eta Michael Douglasek adibidez.

■ 37 HORAS DESESPERADAS.

William Wylerrek Bogartekin egindako *Horas desesperadas* ederraren bertsio berria, Michael Cimino interesgarriak zuzendua, nahikoa entretenigarria da, eta gustura ikusten da, besteak beste, kameraren parean biltzen duen aktore taldeari esker. Mickey Rourke espresiogabeak rol nagusia antzezten du, baina ez kezkatu, inguruan dituen antzezleak oso erakargarriak baitira, Mimi Rogers eta Anthony Hopkins tartean.

■ EL SECRETO DE MI EXITO.

Michael J. Fox protagonista luzitzeko sortutako komedia txikia, Herbert Rossen lan kas-karretakoa da, dudarik gabe. Gazte baten arrakasta profesionalaren berri jakingo dugu, haren gorabeherekin ikus-entzulea entretenitzen saiatuko den bitartean. Erraz ikusten da, atsegina baita eta honezkero ezagutzen baitugu bertan kontatutako guztia. Bai eta amaiera susmatuko ere.

■ TODOS LOS HOMBRES SOIS IGUALES.

Gomez Pereiraren komedia arin eta entretenigarri hau, zuzena da, batik bat Estatu espainiarrean filmatu ohi diren umorez-

Propaganda film atzerakoi baten xarma

■ AMOR A REACCION. John Wayne eta Janet Leigh izarrak biltzen dituen zinta zahar hau, Von Sternberg alemaniarrek Ameriketara filmatua, gerra garaian ehunka sortu ziren propaganda-film horietako bat da. Sternberg eskuindarrak umorezko tonua auke-ratu zuen txanda honetan komunismoaren aurkako mezu nabar-mena duen testu atzerakoi baten bertsio zinematografiko zuzen samarra filmatzeko.

Petit poucet l'espigle	♦ ♦
1997, Andy Cadiff, 80 m.	08:55 C+(f)
De vuelta a casa.Un viaje increible	♦ ♦
1993, Duwayne Durham, 85 m.	15:25 T5
La noche de los tornados	♦ ♦
1996, Timothy Bond, 86 m.	15:35 A3
El secreto de mi éxito	♦ ♦
1987, Herbert Ross, 105 m.	15:40 TVE1
Coma	♦ ♦ ♦
1978, Michael Crichton	17:00 ETB2
Debla, la virgen gitana	♦ ♦
1950, Ramon Torrado, 87 m.	18:00 TVE1
Las mujeres de Jake	♦ ♦
1995, Glenn Jordan, 88 m.	20:55 La2
Punto de partida	♦ ♦
1998, Dennis Quaid, 91 m.	22:00 C+(e)
37 horas desesperadas	♦ ♦ ♦
1990, Michael Cimino, 100 m.	22:45 ETB2

Todos los hombres sois iguales	♦ ♦ ♦
1994, Manuel Gomez Pereira, 100 m.	23:45 T5
Remo: desarmado y peligroso	♦ ♦
1985, Guy Hamilton	00:40 ETB2
Delta Force III	♦
1991, Sam Firstenberg, 94 m.	00:50 A3
Amor a reacción	♦ ♦ ♦
1957, Josef Von Sternberg, 107 m.	01:00 La2
Universidad estatal	♦ ♦
1981, James Goldstone, 146 m.	02:35 A3
Autopista del licor	♦ ♦
1995, Andy Armstrong, 92 m.	02:35 TVE1
Cerca de la ciudad	♦
1952, Luis Lucia, 88 m.	02:50 La2
El masaje	♦ ♦
1995, Nicolas Roeg, 89 m.	03:45 T5
Odio mi cuerpo	♦ ♦
1974, Leon Klimovsky, 94 m.	04:10 TVE1

♦ TXARRA ♦ ♦ ESKASA ♦ ♦ ♦ BALEKOA ♦ ♦ ♦ ♦ ONA ♦ ♦ ♦ ♦ ♦ BIKAINA



Anthony Hopkins da *37 horas desesperadas* filmeko aktoreetako bat.

ko abentura zozo eta baldar horiek kontuan hartzen baditugu. Zertxobait landuagoa argumentuz eta ederki errealizatua, zenbait unetan ikus-entzuleon ezpainetan irribarrea ez ezik barre algarak ere sorraziko dituen komedia baita. Aktoreak ez dabilta makal: Cristina

Marcos gaztea, adibidez, fin dabil, eta hainbeste gizonezkoen artean erregina bihurtuko da. Sari bat baino gehiago jaso zuen film honetan egindako antzezpenagatik, eta, noski, inguruan dituen hiru gizon zakar eta balio gutxikoak jasateagatik ere.

ETB 2

07:50: **Voluntad de hierro.** Dokumentala.
08:45: **Lengua Viva.**
09:15: **Mil y una gentes.**
09:45: **Cien por Cien.** Antxon Urrusolok aurkeztutako saioa.
12:20: **Desde el gallinero.** Asier Hormazak aurkeztutako saioa.
12:50: **Empresa vasca.**
13:20: **El arca del siglo XXI.** Dokumentala.
14:28: **Teleberri.**
15:30: **Cineaventura.**
Asterix y el golpe del menhir. Marrazki bizidunak.
17:00: **Zinema.**
Coma. Zuz.: Michael Crichton. Akt.: Genevieve Bujold, Michael Douglas. 1978.
19:00: **Stargate.** Telesaila.
20:28: **Teleberri.**
21:15: **La Peña.**
22:45: **Zinema.**
37 horas desesperadas. Zuz.: Michael Cimino. Akt.: Micky Rourke, Anthony Hopkins. 1990.
00:40: **Zinema.**
Remo: desarmado y peligroso. Zuz.: Guy Hamilton. Akt.: Fred Ward, Joel Grey. 1985.
02:35: **Adderly.** Telesaila.
03:20: **Gran Hawaii.** Telesaila.
04:05: **Amaiera.**

ETB 1

06:55: **Rockazoka.** Sexy Sadie.
07:25: **Honatz! Komikigile-rik haundienak.** Dokumentala.
07:55: **Euskal Herritik.**
08:25: **Superbat.** Haurrentzako marrazki bizidun eta telesaila sorta: 'Superheroiak', 'Espazio-ko zaindariak', 'Bruno Gaztea', 'Dragoi basatia', 'Txakurrak zerura doaz II'.
11:35: **Ikusgela.**
12:25: **Teknopolis.** Pili Kaltzadak aurkeztutako saioa.
12:55: **Hitzaro.**
13:25: **Elkartasunaren bideak.** Dokumental saila.
14:00: **Gaur Egun.** Albistegia.
14:25: **Galdestreet.**
15:20: **Algara.** Umore saioa.
15:50: **KTM!.** Gazteentzako saioa.
16:55: **Kirolez Kirol.** Carom Jai Alai-zesta profesionalak: Unziti-Eneko / Elola-Arrieta. Futbola, 2. maila: At. Madrid B-Extremadura (17:55ean).
20:00: **Albisteak.**
20:10: **Futbola.** Futbol atarikoa. Futbol partidua zuzenean: Rayo-At. Madrid (20:55etan).
23:00: **Pilota: Eskuz binaka.** Eugi-Goñi III / Titin III-Lasail. Atxa-lparragirre / Martinez-Errandonea III.
00:55: **Agur Kantuz 2.000 Kantuz.** Errepikapena.
02:00: **Izar Bila.**
03:15: **Euskadi Gaztea.** Zea Mays.
03:55: **Izar Bila.**
05:20: **Eguzki Lore.** Dokumental saila.
05:50: **Ikusgela.**
06:40: **Ekinez egina.**
07:05: **Urak dakarrena.** Dokumental saila.
07:05: **Osabideak.**

irratia

♦

Herri Irratia. 07:30etan, *Haize Bolada* saioarekin ekingo diote egunari. 08:15etan errosarioa errezatuko dute, eta 09:00etan eukaristia. 09:30etan, *Zuretzat zuzenean* saioa eskainiko du Mailu Odriozolak, eta 10:15etatik 11:00etara bitartean haurrek hartuko dute protagonismoa, *Kuku Miku* saioan. 11:00etan, *Herriz herri* saioan, Legutiora eta Astigarragara ekingo dute bidaia. Eguerdian, 13:00etan, informatiboa eskainiko dute, eta 13:30etan kirol

eko berriak emango dituzte. 15:00etan, *La pecera* saioan informatika eta Interneti buruzko berriak jorratuko dituzte. 16:00etan, musika izango da entzungai, eta 17:30etan, Bilbon gaur egingo den manifestazioaren berri emango dute zuzenean.

Bizkaia Irratia. Goizean, 07:30etan, *Aupa Bizkaia* izeneko saioarekin ekingo diote egunari. Saio honetan albisteak eta elka-

rrizketak egini ohi dituzte. 09:00etan meza eskainiko dute, eta 09:30etan *Bihotzetik bihotzari* saioak beteko ditu minutuak. Saio honetan zorion agurrak dira nagusi. Entzuleek elkar zoriontzeko aukera dute. 11:00etan, *Jirabiran* izeneko magazinean, hainbat albiste eta elkarrizketa eskainiko dituzte eta musika tartekatuko dute. Arratsaldean musika izango da nagusi. Era guztietako musika eskainiko dute.